## UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

## 2012ko IRAILAK 25 / 25 - SEPTIEMBRE - 2012

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 25/09/2012

**HASIERA / INICIO:** 17:00

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
2. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
3. Alkateordea, Don Andoni Iruarrizaga Amantegi jauna
4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiolagarai jauna

Don Juan Ignacio Martínez Orea jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)**
Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Doña Arrate Elkoro Zengotitabengoa andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE)**
Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez PSE-EE (PSOE) jauna
Doña Idoia Agorría Martínez andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)**
Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)**
Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2012KO EKAINAREN 12KO EZ OHIKOA ETA 2012KO EKAINAREN 26KO OHIKOA.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2012ko ekainaren 12ko ez ohikoa eta 2012ko ekainaren 26ko ohikoa hain zuzen ere.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2012ko ekainaren 12**ko Osoko Bilkuraren ez ohiko akta eta **2012ko ekainaren 26**ko ohiko akta.

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Atzo, Bozeramaleen Batzordean, osoko bilkuran egin beharreko asunto baten berri eman genuen, hau da, hauteskunde mahaien zozketa egingo dugula. Grebaren gutxienezko zerbitzuak atzo adierazi genituen, beraz, ez dago berri emateko beste gairik.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**HIRU.- "BATEGINEZ" GKEAREKIN DAGOEN HITZARMENA HANDITZEKO PROPOSAMENA. (GIZARTE-EKINTZA, LANKIDETZA ETA IMMIGRAZIO BATZORDEAREN 2012KO IRAILAREN 18KO IRIZPENA).**

Gizarte-Ekintza, Lankidetza eta Immigrazio Batzordearen 2012ko irailaren 18koa, irizpe-

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES, CORRESPONDIENTES A LA EXTRAORDINARIA DE 12 DE JUNIO Y ORDINARIA DE 26 DE JUNIO, AMBAS DE 2012.**

DADA LECTURA a los borradores de las Actas de las sesiones anteriores, correspondientes a la Extraordinaria de 12 de Junio y Ordinaria de 26 de Junio, ambas de 2012.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** las Actas de los Plenos: Extraordinario de **12 de Junio** y Ordinario de **26 de Junio, ambos de 2012.**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Tal y como informamos ayer en la reunión de la Junta de Portavoces, en esta sesión plenaria se debe tratar el asunto del sorteo de mesas electorales. Por otro lado, ya señalamos los servicios mínimos para la huelga, por lo que no hay ningún otro asunto del que dar cuenta.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**TRES.- PROPUESTA DE INCREMENTO DE CONVENIO CON LA ONG "BATEGINEZ". (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ACCIÓN SOCIAL, COOPERACIÓN E INMIGRACIÓN DE 18 DE SEPTIEMBRE DE 2012).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Acción Social, Coopera-

narean berri ematen da:

*"Gizarte Ekintza arloaren aurrekontuan- Garapenerako Laguntzan- Bateginez Gobernuz kanpoko erakunde durangarrarekin hitzarmena sinatuta dago 20.500 euroko kantitatearekin. Horren bidez, Udalak zuzenean parte hartzen du aipatutako elkarteak Guatemalako San Miguel de Potxuta herrian kudeatzen dituen proiektuetan, eta, baita ere, Durangon aurrera daramaten sentsibilizazio programetan.*

*Uztailaren 12an egindako gizarte ekintza batzordean, GKEko kideek adierazi zuten zailtasunak dituztela Guatemalan aurrera eramaten zituzten programak mantentzeko, azken urteetan izandako diru sarreren murrizketagatik.*

*GKEak batzordeari idatzia eman dio, hitzarmena 10.000,00 eurotan handitzeko eskaerarekin. Kopuru horrek, entitatearen egitura zein eguneroko jarduera mantentzea suposatuko luke.*

*Batzordean aurkeztu da Bateginez GKEkin dagoen hitzarmena handitzearen proposamenaren onarpena.*

*Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV) sailaren presidenteak, proposatu du urte horretarako izendun diru-laguntza egitea 30.500,00 euroko kantitateagatik. Beraz, batzordeari 10.000,00 euroko aldea onartzea proposatu zaio.*

*Aldeko botoak: 4 EAJ-PNV, 2 PSE-EE (PSOE), 1 Bildu eta 1 Aralar.*
*Kontrako botoak: Bat ere ez.*
*Abstentzioak: Bat ere ez.*

*Batzordeak, aho batez, Udaleko osoko bilkurara eraman du hitzarmena handitzearen proposamena, aipatutako kantitateagatik."*

ción e Inmigración en sesión de 18 de Septiembre de 2012, del tenor siguiente:

*"El presupuesto del Área de acción social - Cooperación al desarrollo - recoge un convenio nominativo con la ONG Duranguesa Bateginez por un importe de 20.500 €, a través del cual el Ayuntamiento colabora de forma directa en los proyectos gestionados por la mencionada asociación en el municipio de San Miguel de Pochuta en Guatemala y en los programas de sensibilización desarrollados en Durango.*

*Componentes de la ONG expusieron en la comisión de acción social de fecha 12 julio la dificultad en el mantenimiento de los diferentes programas que desarrolla en Guatemala ante la perdida progresiva de ingresos en los últimos años.*

*La ONG presenta una solicitud por escrito a la comisión, en la cual solicitan un incremento de convenio por un importe de 10.000 €; importe que les permitiría sostener la estructura de la entidad y su actividad diaria.*

*Se presenta a esta Comisión la propuesta de aprobación del incremento de convenio con la ONG Bateginez.*

*La propuesta presentada por la presidenta del área Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV) asciende para este ejercicio a una subvención nominativa por un importe de 30.500,00 €, proponiéndose a esta Comisión la aprobación de esta diferencia de 10.000 €.*

*Votos a favor: 4 EAJ-PNV, 2 PSE-EE (PSOE), 1 Bildu y 1 Aralar.*
*Votos en contra: 0.*
*Abstenciones: 0.*

*Por unanimidad, esta Comisión eleva al pleno de la Corporación propuesta de incremento en el convenio a suscribir con la ONG Bateginez por el citado importe."*

Presidenteak eztabaida-tartea irekitzen du. Ondorengo zinegotziek hartzen dute parte:

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Labur-labur, pozten gara Alderdi Sozialistaren proposamena, hitzarmenaren zenbatekoa 10.000 euro handitzeko proposamena onartu izanaz. Gure ustez, Bateginez GKEak funtsezko lana egiten du Durangon eta, pixkana-pixkana, gero eta proiektu gehiago ditu.

Batzordearen aurreko bileran, beste proiektu bat aurkeztu zuten, hezkuntza- eta osasun-arlokoaz gain. Hain zuzen ere, sareen proiektua aurkeztu zuten, eta gazteak funtsezkoak dira proiektuan. Kolonbiako herriari dirua emateaz, uste dugu oso lotura estuak eta sentsibilizazioa sorrarazten dituztela bi herrien artean, eta, hartara, Durangoko herritarrei parte harrarazten diete. Ildo berean lan egitera bultzatu nahi ditugu.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Aldeko botoa emango dugu, eta gu ere poztu egiten gara Bateginezek egindako eskaeraren aurrean, bere hitzarmena handiagotzeko alderdi politiko guztien aho batekotasuna egon delako.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, "Bategiñez" GKErekin izenpeturiko hitzarmena 10.000 eurotan gehitzea erabaki du; hortaz, guztirako laguntza 30.500 euro izango dira.

**LAU.- ARANDOÑO KULTUR ELKARTEAREN HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (EUSKARA, KULTURA ETA HEZKUNTZA ARGIBIDE BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2012KO IRAILAREN 6KOA).**

Euskara, Kultura eta Hezkuntza Argibide Batzordearen 2012ko irailaren 6koa, irizpenarean berri ematen da:

La Presidencia abre el turno de debate, interviniendo tan solo las siguientes Corporativas:

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Brevemente decir que nos alegramos que se haya aceptado la propuesta del Partido Socialista de incrementar en 10.000 euros el convenio. Creemos que la ONG Bateginez desarrolla un trabajo clave en Durango y van aumentando poco a poco los proyectos.

En la anterior comisión trajeron un proyecto más, aparte del educativo y sanitario, trajeron el proyecto de redes, donde la juventud es clave. Además de la parte económica que destinan al pueblo colombiano, nos parece que los lazos de unión y sensibilización que se establecen entre ambos municipios son muy importantes y de esa forma hacen partícipe a la población de Durango. Seguimos animándoles a que sigan trabajando de la misma manera.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Vamos a votar a favor. También nosotros nos alegramos ante la solicitud presentada por Bateginez, puesto que todos los partidos políticos hemos coincidido en la ampliación de dicho convenio.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, aprueba incrementar el Convenio a suscribir con la ONG "Bateginez" en la suma de 10.000,- euros, por lo que la subvención total ascenderá a 30.500,- euros.

**CUATRO.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LA ASOCIACIÓN ARANDOÑO. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA, CULTURA Y EDUCACIÓN DE 6 DE SEPTIEMBRE DE 2012).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación en sesión de 6 de Septiembre de 2012, del tenor siguiente:

*"Udaleko euskara, kultura eta hezkuntza argibide batzordeak, 2012ko irailaren 6an egindako batzarrean, Arandoño Kultur elkartea eta Durangoko udalaren arteko lankidetza hitzarmenaren alde bozkatu zuen; aipatutako hitzarmena Saskia Rouresek – Aragoiko Goi Mailako Musika Kontserbatorioko irakaslea-kontzertu-mahai-ingurua egiteko sinatu da. Kontzertua urriaren 27an izango da eta hitzarmena 2.500 eurogatik sinatuko da.*

*Bozketaren emaitza:*

*Aldeko botoak: 8; Andoni Iruarrizaga, Iker Oceja, Jon Kepa Garro, Natxo Martinez (EAJ/PNV), Iker Urkiza (Aralar), Pilar Rios, Idoia Agorria (PSE-PSOE) eta Adrian Castro (PP) .*

*Hortaz, irizpena osoko bilkurara igortzen da berau aztertu eta, hala badagokio, onartu dezan."*

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Puntu honetan uste dut azalpen guztiak emanda daudela bai Kultura batzordean eta baita Ogasunean. Dakizuenez ez da zenbatekoa aldatzen, ez da diru-jasotzailea aldatzen, aldatzen den gauza bakarra da hitzarmenaren izenburua, hau da, kontzertuaren helburua ez da aurreko urtekoa baizik eta aurtengoa.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, Durangoko Udalaren eta Arandoño Kultur Elkartearen artean izenpetutako Hitzarmena ONARTU EGITEN DU. Testua hauxe da:

***"DURANGOKO UDALAREN ETA ARANDOÑO KULTUR ELKARTEAREN ARTEAN IZENPETUTAKO HITZARMENA***

*Durangon, 2012ko *aren *an*

***BILDURIK:** Batetik, ANDONI IRUARRIZAGA AMANTEGI jauna, NAN 30.622.091-Y,*

*"La Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación, en sesión celebrada el 6 de septiembre de 2012, dictaminó a favor de la firma de Convenio de Colaboración con la Asociación Arandoño para la realización de un concierto-coloquio por parte de Saskia Roures, profesora de órgano del Conservatorio Superior de Música de Aragón. El concierto se realizaría el 27 de octubre. La cantidad establecida en el convenio es de 2.500 €.*

*Resultado de la votación:*

*Votos a favor: 8, Andoni Iruarrizaga, Iker Oceja, Jon Kepa Garro, Natxo Martínez (EAJ/PNV), Iker Urkiza (Aralar), Pilar Ríos, Idoia Agorria (PSE-EE-PSOE) y Adrián Castro (PP).*

*En consecuencia, se eleva el dictamen a Pleno para su estudio y, si procediere, posterior aprobación."*

* Alcaldesa, **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Creo que todas las explicaciones sobre este punto ya se han ofrecido tanto en la Comisión de Cultura como en la de Hacienda. Como bien sabéis, el importe no varía, y tampoco varía el perceptor. Lo único que varía es el nombre del convenio. Es decir, el objeto del concierto no es el del año pasado, sino el de éste.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, APRUEBA el Convenio a suscribir entre el Ayuntamiento de Durango y la Asociación Arandoño Kultur Elkartea, del tenor siguiente:

***"CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y LA ASOCIACIÓN ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA***

*Durango, a * de * de 2012*

***REUNIDOS:** De una parte, Don ANDONI IRUARRIZAGA AMANTEGI, DNI 30.622.091-Y,*

*DURANGOKO UDALEKO alkateordea, eta ekintzaren fede ematen duen Idazkari Nagusi RAMON SORARRAIN TOLOSA jaunak lagundurik, NAN 14.586.472-X.*

*Eta, bestetik, XABIER ARANA ARRINDA jauna, NAN 30.694.359-P, ARANDOÑO KULTUR ELKARTEAren presidente moduan.*

***DIHARDUTE**: ANDONI IRUARRIZAGA AMANTEGI jaunak, Udalaren izenean eta alkateorde delarik, 2011ko uztailaren 7ko alkate-dekretu bidez onarturiko delegazioarekin bat etorriz; RAMON SORARRAIN TOLOSA jaunak, Udaleko Idazkari Nagusi moduan eta XABIER ARANA ARRINDA jaunak, ARANDOÑO KULTUR ELKARTEAko presidente moduan eta berau ordezkatuz, aipatutako elkartearen zuzendaritza batzordearen akordioarekin bat etorriz.*

***AITORTU ONDOREN** batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko.*

***ADIERAZTEN DUTE:***

*I.- ARANDOÑO KULTUR ELKARTEAren helburua, beren estatutuen arabera, honako hau da: orokorrean kultura musikala bultzatzea eta, bereziki organo musika sustatzea.*

*II.- Durangoko Udalak lankidetza-esparru bat formalizatu nahi du ARANDOÑO KULTUR ELKARTEArekin, aipatutako ekintzak sustatzeko interes amankomuna bideratzeko asmoz. Horrexegatik, ondorengo lankidetza-hitzarmena izenpetzen dute, jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituena.*

***BETEBEHARRAK:***

***DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA**.- Durangoko Udalak 2.500 (BI MILA ETA BOSTEHUN) euroko diru-laguntza emango dio ARANDOÑO KULTUR ELKARTEAri. Ordainketa 61.4561.48101 diru-partidaren kargura egingo da. Diru-laguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da.*

*teniente de alcalde del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistido de la Secretario General Don RAMON SORARRAIN TOLOSA, con D.N.I. nº 14.586.472-X, que da fe del acto.*

*Y de otra, representada por XABIER ARANA ARRINDA, con D.N.I. nº 30.694.359-P, en su condición de presidente de la asociación ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA.*

***ACTUAN**: Don ANDONI IRUARRIZAGA AMANTEGI, en su calidad de teniente de alcalde, en nombre y representación del Ayuntamiento, en virtud de la delegación acordada por la alcaldesa mediante decreto de 7 de julio de 2011; Don RAMON SORARRAIN TOLOSA, en su calidad de Secretario General del Ayuntamiento y Don XABIER ARANA ARRINDA, como presidente de ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA, en nombre y representación de la misma, conforme al acuerdo de su Junta Directiva.*

***RECONOCIÉNDOSE** las capacidades jurídica y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan*

***MANIFIESTAN:***

*I.- Que ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA tiene como fin fundacional, según su norma estatutaria, promover la cultura musical en general, con especial atención a la música de órgano.*

*II.- Que el Ayuntamiento de Durango desea establecer un marco estable de colaboración con ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA, en aras a la consecución del interés concurrente de la promoción de la actividad referida. Es por lo que formalizan el presente Convenio de Colaboración, que contiene las siguientes*

***CLÁUSULAS:***

***COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO**.- El Ayuntamiento de Durango subvencionará con 2.500 (DOS MIL QUINIENTOS) euros a ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA, con cargo a la partida 61.4561.48101, subvención de carácter finalista que será destinada por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango, que se describen en la cláusula siguiente.*

***ARANDOÑO KULTUR ELKARTEAk HARTZEN DUEN KONPROMISOA.**-*

*Ondorengo ekintzak antolatzea eta egitea:*

- *Hitzaldi-kontzertua SASKIA ROURES organistaren eskutik San Frantzisko Elizan.*

*Ekintzok iragartzeko jarriko den publizitatean, Durangoko Udalaren logotipoa agertuko da ondo ikusteko moduan.*

***DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.**- Durangoko Udalak honela ordainduko dio ARANDOÑO KULTUR ELKARTEAri. %60a hitzarmena indarrean sartu eta hurrengo astean ordainduko da. Gainerako %40a, diru-laguntza eman izanagatiko helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da. Justifikatzerako orduan hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete direnei buruzko dokumentazio egiaztagarria ere aurkeztu behar da. Ez da fidantzarik jarri behar izango administrazioak aurreraturiko diru-kopuruarengatik.*

***IRAUPENA.**- Hitzarmena bertan behera geldituko da 2013ko otsailaren 28an.*

***HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.**- ARANDOÑO KULTUR ELKARTEAk hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetza-hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako diru-laguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.*

***BATERAGARRITASUNA.**- Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen diru-laguntzen egiaztagiriak aurkeztu behar ditu.*

***ARAUDI OSAGARRIA.**- Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege*

***COMPROMISO ASUMIDO POR ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA.**-*

*Organizar y realizar las siguientes actuaciones:*

- *Coloquio-concierto a cargo de la organista SASKIA ROURES en la Iglesia de San Francisco.*

*Colocar en lugar visible, en toda la publicidad que se realice de las actuaciones convenidas, el logotipo del Ayuntamiento de Durango.*

***FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN.**- El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA se realizará de la forma siguiente: 60% dentro de la semana siguiente a la entrada en vigor del Convenio. El 40% restante se abonará tras el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y una vez justificado el gasto, así como la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este Convenio. No será necesario afianzar los importes adelantados por la Administración.*

***DURACIÓN.**- El presente Convenio quedará extinguido el 28 de febrero de 2013.*

***EXTINCIÓN.**- El incumplimiento de los compromisos adquiridos por ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA producirá, además de la extinción inmediata del Convenio de Colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2.003, General de Subvenciones.*

***COMPATIBILIDAD.**- La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.*

***NORMATIVA COMPLEMENTARIA.**- En lo no dispuesto en este Convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 Gene-*

*Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.*

*Adostutakoaren lekuko, partaideek honako hitzarmen honen bi ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean."*

**BOST.- 2011-2012 IKASTURTEKO EUSKARA BEKEN DEIALDIA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (EUSKARA, KULTURA ETA HEZKUNTZA ARGIBIDE BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2012KO IRAILAREN 6KOA).**

*Euskara, Kultura eta Hezkuntza Argibide Batzordearen 2012ko irailaren 6koa, irizpenarean berri ematen da:*

*"Udaleko euskara, kultura eta hezkuntza argibide batzordeak, 2012ko uztailaren 6an egindako batzarrean, 2011-2012 ikasturteko beka-deialdiaren proposamena onartu zuen. Aurreko urtearekiko deialdiarekin alderatuta, aldaketa bat egiten da 5. artikuluko diru-laguntzaren zenbatekoari dagokionez: Iazko aurrekontuetan agertzen zen 13.000 euroen ordez, aurten, 15.000 euro izatea proposatzen da, eta 2.000 euroko diferentzia hau "euskarazko errotulu eta web orrien diru-laguntza deialditik" aterako da.*

*Bozketaren emaitza:*

*Aldeko botoak: 6; Andoni Iruarrizaga, Jon Kepa Garro, Natxo Martinez eta Iker Oceja (EAJ/PNV), Adrian Castro (PP) eta Iker Urkiza (Aralar).*

*Abstentzioak: 2, Pilar Rios eta Idoia Agorria PSE-EE (PSOE).*

*Hortaz, irizpena osoko bilkurara igortzen da berau aztertu eta, hala badagokio, onartu dezan."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

*ral de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.*

*Y para que conste en señal de conformidad, afirmándose y ratificándose en el contenido del presente documento, que prometen cumplir leal y fielmente, lo firman por duplicado ejemplar a un sólo efecto, en el lugar y fecha arriba indicados."*

**CINCO.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LA CONVOCATORIA DE BECAS DE EUSKERA DEL CURSO 2011-2012. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA, CULTURA Y EDUCACIÓN DE 6 DE SEPTIEMBRE DE 2012).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación en sesión de 6 de Septiembre de 2012, del tenor siguiente:

*"La Comisión informativa de Euskera, Cultura y Educación, en sesión celebrada el 6 de septiembre de 2012, dictaminó a favor de la convocatoria de becas de euskera para el curso 2011-2012. La propuesta incluye una modificación en el artículo 5º de la citada convocatoria, el relativo a la cuantía de la subvención. En los presupuestos del año anterior aparecía la cantidad de 13.000 euros, mientras que para este año se propone que sea 15.000 euros, añadiendo los 2.000 euros requeridos de la convocatoria de "rótulos y páginas web en euskera".*

*Resultado de la votación:*

*Votos a favor: 6; Andoni Iruarrizaga, Jon Kepa Garro, Natxo Martinez eta Iker Oceja (EAJ/PNV), Adrian Castro (PP) e Iker Urkiza (Aralar).*

*Abstenciones: 2, Pilar Rios e Idoia Agorria PSE-EE (PSOE).*

*En consecuencia, se eleva el dictamen a Pleno para su estudio y, si procediere, posterior aprobación."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Uste dut uztaileko batzordean eman zela honen berri, baina irailera arte utzi genuen irizpena egitea Talde guztiek denbora izan zezaten oinarriak aztertzeko eta irizpide bat hartzeko.

* **Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu)**: Bakarrik herritarrei azaltzea aldaketa batzuk egon direla. Aldaketa horiek, batez ere, izan dira errotuluetatik atera dela dirua eta beketara eraman dela. Euskera Teknikariak azaldu zuen moduan, diru gehiago behar zelako beketan errotuluetan baino. Hori dela eta, ondo ikusten dugu. Dena den betiko moduan, ikusten dugu gutxieneko bat ez dela betetzen, hau da, aurrekontuetan euskarari %2a eman beharko zitzaion eta oraindik ez gara kopuru horretara heltzen.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Hobetzen jarraitzeko asmoarekin, aldeko botoa emango diogu.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, 2011-2012 euskara beken diru-laguntza deialdiaren 5. artikulua aldatzea onartu du, alegia, diru-laguntzaren zenbatekoari dagokiona, hortaz, 2.000 euro gehiago izango dira, hau da, dirulaguntzen guztirako zenbatekoa 15.000 euro izango da.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Creo que ya se dio cuenta de esto en la reunión de julio de la Comisión, pero pospusimos posponer hasta septiembre la elaboración del dictamen, para que todos los Grupos dispusieran de tiempo para analizar las bases y concretar su criterio.

* Concejal **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu)**: Sólo aclarar a la ciudadanía que se han realizado ciertas modificaciones. La modificación principal ha consistido en que se ha sacado dinero de los rótulos para trasladarlo a las becas, ya que hacía falta más dinero para las becas que para los rótulos, tal y como explicó el Técnico de euskera. Así pues, nos parece bien. Sin embargo, como siempre, vemos que no se cumple con el mínimo; es decir, no se cumple ese 2 % de los presupuestos debería ser destinado al euskera, ya que todavía no alcanzamos esta cifra.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Con ánimo de seguir mejorando, vamos a votar a favor.

PREVIA votación celebrada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda modificar el artículo 5º de la convocatoria de becas de euskera del curso 2011-2012, en lo relativo a la cuantía de la subvención, que será ampliada en 2.000 euros, por lo que su importe total ascenderá a 15.000,- euros.

**SEI.- 2011KO KONTU OROKORRA ONARTZEA. (OGASUN, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2012KO IRAILAREN 19KOA).**

Hazienda, Langileak eta Udaltzaingoa Batzordearen 2012ko irailaren 19koa, irizpenaren berri ematea da:

*"Kontu orokorraren eraketa hurrengo hau da: egoera-balantzea, galera eta irabazien kontua, txostena eta udalaren, bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoen aurrekontua-*

**SEIS.- APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DEL EJERCICIO 2011. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 19 DE SEPTIEMBRE DE 2012).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal de 19 de Septiembre de 2012, del tenor siguiente:

*"La cuenta general esta formada por el balance de situación, Cuenta de Perdidas y Ganancias, Memoria y Liquidación del Presupuesto del Ayuntamiento y sus or-*

*ren kitapena; honek guztiak, erakunde publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzieroa, aurrekontuena eta ondare-kudeaketaren ikuspegia ematen du.*

*Azken finean, aurrekontuaren kitapenaren kontabilitatearen isla da.*

*Toki Erakundeen Aurrekontuen Foru Arauak ezartzen duenaren arabera, 2011ko Kontu Orokorrak, Kontu Berezien batzordearen onarpena behar du; halaber, BAOn argitaratu eta hurrengo 15 egunetan jendaurrean egongo da ikusgai, herritarrek, beraien oharrak eta alegazioak aurkeztu ditzaten. Behin epea bukatuta, egon daitezkeen alegazioekin Kontu Berezien batzordetik pasatu behar da informe berri bat egiteko eta, hala balegokio, Osoko Bilkurara eramateko bertan onartua izan dadin.*

*Uztailaren 11ko Kontu Berezien batzordeak informe bat egin zuen; uztailaren 26ko BAOn argitaratu zen eta, ez zenez inolako alegaziorik aurkeztu, berriz ere batzorde honetan aurkezten da informe berri bat egin eta Osoko Bilkurara eramateko bere onarpenerako.*

*Alegaziorik ez denez aurkeztu, ez da beharrezkoa informe berri bat egitea, hau da, aurretik zegoen informea nahikoa da.*

*Bozkatu egiten da hurrengo emaitzak lortuz:*

*Alde: 4, EAJ/PNV (4).*
*Kontra: 0.*
*Abstentzioak: 5, Bildu (1), PSE-EE (PSOE) (2), Aralar (1) eta PP (1).*

*2011ko Kontu Orokorra onartzeko proposamena Osoko Bilkurara eramango da."*

KONTU BATZORDE Bereziaren, 2012ko ekainaren 11ko, aldeko irizpena izan eta gero, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 144.

*ganismos autónomos y sociedades publicas, y lo que nos da es una visión de la gestión económico-financiero, presupuestaria y patrimonial del ente público.*

*Viene a ser un reflejo contable de la liquidación del Presupuesto.*

*La Norma Foral Presupuestaria de las Entidades Locales establece que la Cuenta General debe ser sometida a informe de esta Comisión Especial de Cuentas la aprobación de la Cuenta General del ejercicio de 2011, poniéndose a exposición pública durante 15 días a partir de la publicación en el BOB, para la presentación por los ciudadanos de observaciones, alegaciones y reparos, una vez transcurrido el plazo y con las alegaciones, si las hubiera, volvería a pasar por la Comisión Especial de Cuentas para la emisión de un nuevo informe y elevar al Pleno para la aprobación si procediera.*

*En Comisión Especial de Cuentas de 11 de julio se emitió informe por esta Comisión y finalizado el período de exposición tras haberse publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia en fecha 26 de julio, sin haberse presentado alegación ni observación alguna, nuevamente se presenta a esta Comisión para la emisión de nuevo informe, sometiéndose al Pleno para su aprobación.*

*Al no haberse presentado alegaciones, no es necesario emitir un nuevo informe, se valida el anterior realizado,*

*La Presidente somete a dictamen de esta Comisión dando el siguiente resultado:*

*Votos a favor: 4, EAJ/PNV (4).*
*Votos en contra: 0.*
*Abstenciones: 5, que corresponden a Bildu (1), PSE-EE (PSOE) (2), PP (1) eta Aralar (1).*

*Elevándose a Pleno de la Corporación propuesta de aprobación de la Cuenta General del año 2011."*

RESULTANDO que, previo informe favorable de la Comisión Especial de Cuentas de fecha 11 de Julio de 2012,

zenbakian argitaratu zen, 2012ko uztailaren 26an hain zuzen ere. Espedientea jendaurrean erakutsi zen 15 eguneko epean, erreklamazioak, oharrak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

KONTUAN IZANDA aipatutako epearen barruan EZ zela erreklamaziorik, oharrik edo iradokizunik aurkeztu udal honetan.

* Kontuhartzaile ordea Velasco Perez andreak: Kontu Orokorrean, batetik, aurrekontuaren likidazioa sartzen da. Osoko Bilkura honetan duela gutxi eman dugu honen berri. Bestetik, udalaren erakunde autonomoen eta sozietate publikoen ondareen egoera ere sartzen da 2011ko abenduaren 31 harturik erreferentzia data moduan.

Uztailaren 11ko Kontu Batzorde berezian, 2011ko kontu orokorraren berri eman zen eta batzordeak aldeko irizpena eman zuen.

Bizkaiko lurralde Historikoko toki udalbatzen aurrekontuen foru-arauak ezartzen duenaren arabera, uztailaren 26an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jendaurrean erakutsi zen hurrengo 15 egunetan. Ez zen erreklamaziorik aurkeztu; gero, irailaren 19an, berriro aurkeztu zen batzordean eta honek irizpena eman zuen, Osoko Bilkurara ekartzen den irizpena, hain zuzen ere.

Labur-labur esanda, Durangoko udalaren kontu orokorra, 2011ko abenduaren 31n, honakoa da:

Udalaren fondoa 79.305.895,01 eurokoa da; hauetatik 53.785.619,71 euro ondareari dagozkio eta 73.814.126,31 euro metatutako irabaziei.

Irabaziak aipatzen direnean ez dugu esan nahi irabazi horiek udalaren kutxan daudela, esan nahi dugu ondarean, kaleetan eta horrelakoetan daudela.

Beste alde batetik, 2011ko abenduaren 31ko dataz, 44.447.057, 97 euro ditugu guztiok erabiltzeko ondare moduan: herriko plaza, bide publiko, parke eta horrelakoez ari gara.

se publicó el correspondiente Anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 144, correspondiente al 26 de Julio de 2012, sometiendo el expediente a información pública por espacio de 15 días, a efectos de reclamaciones, reparos y observaciones.

CONSIDERANDO que durante el expresado período NO se ha presentado en este Ayuntamiento reclamación ni observación alguna contra el mismo.

* Interventora en funciones Sra. Velasco Pérez: La cuenta general incluye, por una parte, la liquidación del presupuesto. Ya dimos cuenta de ello recientemente ante este pleno. Por otra parte, también incluye el estado patrimonial de los organismos autónomos y sociedades públicas municipales, a día 31 de diciembre de 2011.

En la reunión extraordinaria que celebró la Comisión de Cuentas el día 11 de julio se informó sobre la cuenta general de 2011, y la Comisión emitió un dictamen favorable.

Según lo establecido por la Norma Foral Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, el día 26 de julio, el dictamen se publicó en el Boletín Oficial de Bizkaia y estuvo expuesto al público durante los 15 días siguientes, en los cuales no se presentó ninguna reclamación. Posteriormente, el día 19 de septiembre, se volvió a elevar a la Comisión la cual emitió este dictamen que se presenta hoy al pleno.

En resumen, la cuenta general del Ayuntamiento de Durango a 31 de diciembre de 2011 es la siguiente:

El fondo municipal asciende a 79.305.895,01 euros, de los que 53.785.619,71 corresponden al patrimonio, y 73.814.126,31, a los beneficios acumulados.

Cuando hablamos de beneficios, no queremos decir que los mismos se hayan acumulado a la tesorería municipal, sino que se encuentran en el patrimonio, la calle, etc.

Por otro lado, a 31 de diciembre de 2011, disponemos de 44.447.057,97 euros en patrimonio entregado a uso general: hablamos de las plazas del municipio, vías públicas, parques, etc.

Gaia bozkatu ondoren, emaitza hauxe da:

- Aldeko botoak: HAMAIRU, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralarrekoa.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, **2011ko Kontu Orokorra ONARTU EGITEN DU**, dagokion espedientean dagoen dokumentazioaren bat etorriz.

Sometido el asunto a votación, se obtiene el siguiente resultado:

- Votos a favor: TRECE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: OCHO, 6 de Bildu y 2 del Partido Popular.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** la **CUENTA GENERAL DEL EJERCICIO 2010**, conforme a la documentación obrante en el expediente de su razón.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: 7. puntuan sartu aurretik, eta gauza bera direnez 7. eta 8. puntua, baina bi leku desberdinetan, azalpen teknikoa behin bakarrik emango dugu, baina azalpen teknikoa baliagarria da bai Askatasun Etorbiderako bai E. Bustintza Kirikiño kalerako. Gero puntu bakoitza berezituta bozkatuko da.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Antes de pasar al punto séptimo, debo señalar que ya que tanto el punto séptimo como el octavo de hecho abordan el mismo asunto pero para diferentes lugares, la explicación técnica la daremos una sola vez, ya que sirve igualmente tanto para la Avenida como para la calle Ebaristo Bustintza "Kirikiño". Después, votaremos cada uno de los puntos por separado.

**ZAZPI.- DEMANIAZKO EMAKINA IGOGAILUAK JARTZEKO (ASKATASUN ETORBIDEA 38). (OGASUN, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2012KO IRAILAREN 19KOA).**

Askatasun Etorbideko 38.zenbakiko Jabeen Erkidegoak lan baimena eskatu du berain etxean igogailua jartzeko. Baimena emateko nahitaezkoa da kasu honetan, lur publikoaren gaineko kontzesio demaniala ematea, izan ere, igogailua ezin bait da eraikinaren barnealdean jarri.

**SIETE.- CONCESIÓN DEMANIAL PARA COLOCACIÓN DE ASCENSORES (ASKATASUN ETORBIDEA Nº 38). (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 19 DE SEPTIEMBRE DE 2012).**

Por parte de la Comunidad de Propietarios de Askatasun Etorbidea nº 38 de Durango se ha solicitado licencia de obras para la instalación de un ascensor que de uso a su inmueble. La concesión en su caso de la referida licencia requiere de forma inexcusable la concesión demanial de una porción de suelo público ya que de los informes técnicos municipales se deduce que la instalación del ascensor no puede realizarse en el interior del inmueble.

Udal Zerbitzu Teknikoek igogailua ezin dela eraikinaren barnealdean jarri ziurtatu dute eta horregatik, jartzeko era bakarra, lurzoru publikoa erabiliz, eraikinaren kanpoaldetik jartzea litzateke.

KONTUAN IZANDA Idazkaritza, Kontratazio eta Ondare Teknikariak egindako txostena:

*"IZATEZKO OINARRIAK*

*Askatasun Etorbidea 38ko Jabeen Erkidegoak obra lizentzia eskatu du aipatutako etxearen aurrealdean igogailua jartzeko, Durangoko Udalaren erabilpen publikodun lurzorua okupatuko duena alegia.*

*ZUZENBIDEKO OINARRIAK*

*Udaleko arkitektoak adierazten du igogailuaren instalazioa jabari publikoa okupatuta egin behar dela.*

Eraikina lurzoruan dago eta etxe-saileko bizitegi-eremuko kalifikazioa du. Beheko solairua eta lau solairurako baimena du, eta atzerantz hamar metro ditu. Oraingo eraikinak beheko solairua, gorako beste bost solairu eta trastelekuak kokatzen diren beheko solairu estalia du. Hortaz, azkeneko solairua ordenantzatik at dago, baina honek ez du eragozten eraikinean erreformak egin ahal izatea.

Eraikinak bi tramuko eskailera du, eta bertatik solairu bakoitzeko etxeetara sartzeko sarbidea dauka. Eskaileraren zabalera izan daitekeen txikiena da, hortaz, eskaileraren tipologia aldatzea proposatzen da. Honetarako, tramu berri bat egin behar da eskaileran eta konexioa izan behar du igogailu berrirako. Igogailuak leku handiagoa beteko luke.

Eskailera berria eta igogailua eraikinaren atzealdeko fatxadatik aterako litzateke, eta herri-jabariaren zati bat okupatuko luke: 3,94 x 2,19 m (8,63 m$^2$). Honek ahalbidetzen du igogailua jartzea solairu guztietan. Igogailuaren kabinaren neurriak hauek izango lirateke: 140 x 110 cm. Igogailu

Los Servicios Técnicos Municipales han analizado la imposibilidad de instalación de dicho ascensor en el interior del inmueble, siendo la única posibilidad constructiva la de realizarse ocupando un suelo propiedad del Ayuntamiento de Durango.

CONSIDERANDO el Informe emitido por la Técnico de Secretaría, Contratación y Patrimonio:

*"FUNDAMENTOS DE HECHO*

*Por parte de la Comunidad de Propietarios de Askatasun Etorbidea 38 se ha solicitado, licencia de obras para la instalación de un ascensor a través de la fachada del edificio citado y que ocupará suelo de dominio público propiedad del Ayuntamiento de Durango.*

*FUNDAMENTOS DE DERECHO*

*El Arquitecto municipal justifica en su informe la necesidad de ejecutar la obra de instalación de ascensor ocupando suelo de dominio público.*

Se trata de edificio de suelo urbano, calificado como Zona Residencial en Manzana, permitidas planta baja y cuatro plantas altas, con diez metros de fondo. El edificio actual tiene el perfil edificatorio de planta baja, cinco plantas altas y planta bajo cubierta en la que se ubican los trasteros. La última planta alta se encuentra, por lo tanto, en situación de fuera de ordenanza, lo que no impide autorizar obras de reforma en el edificio.

El edificio tiene una escalera de dos tramos, sin ojo central, desde la que se accede a dos viviendas por planta. La anchura de la misma es la mínima posible, por lo que, se propone el cambio de la tipología de la escalera, convirtiendo este en escalera de un tramo y un pasillo de conexión hacia el nuevo ascensor, que se ubicaría ocupando un mayor fondo edificatorio.

La construcción de la nueva escalera y ascensor sobresaldrá por la fachada trasera del inmueble, y ocupará parte del dominio público, en un área de 3,94 x 2,19 m (8,63 m$^2$). Esto permite la construcción del ascensor con parada en cada planta, con una cabina accesible de tamaño 140 x 110 cm. Los espacios

aurreko guneak eta etxebizitzara sartzeko ateak irisgarriak dira, eta komunikatuta daude metro bateko zabalera duen pasabidearekin, tramu bakoitzeko eskaileratik paraleloan joango delarik.

Eskailera berriak okupatuko duen gune publikoa ez da gehiegi erabiltzen, izan ere, pasagune moduan erabiltzen da eraikinaren atzealdea mantentzeko; hortaz, igogailua jartzeak lurzoru honen gainean ez du eragozten interes publikoa, nahiz eta demaniazko kontzesioa egin behar den lurzoru publiko honek erabilera pribatuzkoa izan dezan.

Gainera, igogailua jartzeak eraikinaren irisgarritasuna hobetuko luke, udalerriko antzerako egoeratan gertatu den bezala.

Portalerako sarbidea hobetze aldera portale barrua mailak kenduko dira, ondorioz, igogailuaren lehen geldialdia kalearen alturan egingo da.

Nolanahi ere, badago konplexutasun bat: obra egiten ari den bitartean eskailera kendu beharko da. Egitasmoan adierazten den moduan, behin behineko aldamio bat jarriko da etxebizitzetara sartu ahal izateko obrak dirauen bitartean. Eskailera behera botatzen den bitartean, eraikina hustu egin beharko da segurtasun-neurriak tarteko.

Igogailua jartzeko egin behar diren obren artean, honakoak aipatu behar dira:

- Fatxada, eskailera, egitura eta akaberak eraistea.

- Instalazio kaltetuak anulatzea edo desbideratzea: argindarra eta ur eta gas horniketa.

- Igogailuaren zuloa egiteko lurzorua trukatuko da 2Kg/cm$^2$ko gutxieneko erresistentziara arte, eta bertatik pasatzen diren sareak desbideratu egingo dira. Nolanahi ere, zerbitzu-sareen aldaketa egiteko konpainia hornitzaileen oniritzia beharko da.

- Igogailuaren zuloa hormatxo eta ormigoi armatuzko lauzez egina egongo da.

de giro frente al ascensor y las puertas de acceso a vivienda son accesibles, y se comunican con un pasillo de un metro de anchura, paralelo a la escalera de un tramo.

